

Larrotxene Baserria

Gainerantzeko kasuetan legez, hau ere hasera batean baserriz osatutako inguru bat zen. Urteak igaro ahala, baserri hauek funtzio desberdinak bete dituzte, Donostiaren beharren eta industrializapen prozesuaren arabera.

Gaur egun Intxaurren Kultur Etxea den baserria horixe zen haseran, baserri bat, erabilkera desberdinak izan baditu ere: taberna eta upategia, zaldi-ibilgailuen alokairua, Artzak-Ortzeok elkartearen egoitza..., beti ere etxebizitzatarako une bat gordetzen zuelarik. Letaman goma-fabrikarena izan zen bere azken erabilkera, eta ondoren hutsik geratu zen, Intxaurrendoko gazte talde bat kultur ekintzetarako erabiltzen hasi arte. 1.984ean erosi egin zuen Donostiako Udalak, bertan gaurrengun Intxaurrendoko Kultur Etxea kokatzeko.




Caserío Larrotxene

Como en los otros casos también Intxaurren era un pequeño núcleo formado por caseríos que fueron empleados según los imperativos de la evolución industrial y las necesidades de la ciudad de San Sebastián para distintas funciones.

La actual Casa de Cultura, en principio edificio rural, Caserío Larrotxene, tuvo muy distintos usos: bar y tonelería, alquiler de coches de caballos, sede de la sociedad Artzak-Ortzeok; y permanentemente reservó una parcela para su utilización como vivienda. Tras su último uso como fábrica de gomas Letaman, quedó abandonado el edificio hasta que un grupo de jóvenes de Intxaurren comenzaron a realizar en él actividades culturales.

En 1.984 lo compra el Ayuntamiento de San Sebastián para realizar las obras de rehabilitación que le convertirán en la actual Casa de Cultura de Intxaurren.





Larrotxene baserria (Intxaurreondo)

auzaldeko kultur eta arte elkarte desberdinetako ordezkariak biltzen dituzte.

Altzan osatu zen, 1.986ko Ekainaren 6ean, lehenengo Batzorde Aholkularia. Era berean, hauxe izan da lanean hasi den lehenengo Kultur Etxea.

Gainerantzeko hirurek 1.987an zehar ekin diote lanari, eta, bakoitzari dagokion Batzorde Aholkularia ere lanean hasi da.

Informazio, topaketa, aholkularitza eta koordinaketa zentruak.

Esan bezala, Kultur Etxearen helburuen artean, eta helburu orokortzat har dezakegun horren barruan, auzoko ekitaldi guztiak mugierazi eta bultzatu ditzaketen egitarau guztiak sar daitezke. Beraz, elkarrenganatzeko eta biltzeko erosoak diren une fisikoak izateaz gain, Kultur Etxeek honako helburu hauek lortzeko oinarrizkoak diren giza nahiz materiale azpiegiturak eskaintzen dituzte:

- auzaldeko ahalmen bakarkako nahiz taldekoak bultzatu.
- aholkularitza eta argibideak eskaini, hala nola, ikasketa eta sorketa kurtsoak prestatu.
- iharduera kultural nahiz artistikoak koordinatu, ekimen desberdinetatik sor daitezkeen iharduera mugierazi eta hauen artean lehenengotasun ordena finkatu.

Programaketa, jarraipena, burutzapena eta zabalpena.

Batzorde Aholkulariek, Etxeetako arduradunek edo eta Patronatuak berak prestatzen dituzte iharduera proposamenak, auzalde bakoitzaren nortasuna eta ezaugarri bereziak ahanzi gabe, ekintza hauek plangintza orokorrarekin bat etor daitezken. Ekintzetan parte hartzen dutenen gain dago programaketan jarraipena, iharduera hauen eragina neurtzeko ebaluaketak ezartzen direlarik. Hiriko hainbat elkarten esku-hartzen dute ekintzen burutzapenean: Gipuzkoako Elkarte Artistikoak, Argazkilarik Elkarteak, Catalina de Erauso Arte Elkarteak, Aitonart-ek, etab...

Hilero argitaratzen den egitarauak ematen du hilabeterako prestatu diren ekintzen berri.